

# KOSTUEN EGITURA



**BETA**



## Hasierako inbertsioa

Gure proiektua **APP** batean oinarrituta dagoenez, honen sormenerako hasierako inbertsio bat egin behar da.

Gure aplikazioa hainbat ezaugarri izango dituenez, hasiera batean **BETA** bertsioan merkaturatuko dugu, oinarritzko ezaugarri batzuekin eta **froga moduan**.

Honen bidez gure proiektuaren **onarpena merkatuan** jakingo dugu, baita erabiltzaileek dituzten iradokizunak honen inguruan.

**Aplikazioaren sormena**  $\approx$  **100€**

Domeinua erostea, datuak gordetzeko zerbitzaria erostea eta bestelako gastuak software-a sortzeko.

**Elkartearen eraketa**  $\approx$  **100€**

Merkataritza-erregistroan inskripzioa eta notaritza gastuak.

**GUZTIZKOA**

$\approx$  **200€**

**Erabilitako dirua gure aurrezkietatik aterako da.**

\* Bat-bateko gastuak ere egon daitezke.



## Kostu Finkoak

1. **APP-aren eta Webgunearen domeinuak hilero** ordaindu behar dira, hauek mantentzeko, aldaketak, berrikuntzak eta konponketak egiteko.
2. Gure proiektua aurrera eramateko beharrezkoa izango den **lan-taldea finantziatzeko kostuak**.
3. Ekipo informatikoak mantentzeko **gastu elektrikoa**.

Ez ditugu gastu finko gehiagorik izango momentuz, APP-aren kudeaketa gure esku egongo delako.



## Kostu Aldakorrak

1. APP-an sortutako **datuak hodeian gordetzeko** kostuak hauen kantitatearen arabera izango dira.
2. Gure enpresa sustatzeko sortutako **publizitate-kanpainak** ere kontuan ditugu, online zerbitzu bat baita.

Beste kostu aldakorrik ez dago gure enpresa ekoizpen fisikorik ez duelako, baizik eta zerbitzu bat eskaintzen duelako.

